



Socios de Astigarraga

EKAITZ, Bar Rte.	CL.TOMAS ALBA, 9
GOIKO ITTURRI, Rte.	FORU ENPARANTZA, 11
IKATZA, Bar Rte.	MAYOR, 32
IRETZA SAGARDOTEGIA, Rte.	TROIA IBILBIDEA, 26
KAKO, Rte.	MAYOR, 19
MENDITXO, Bar Rte.	CS BUENAVENTURA-ALTZA BIDEA
MICAELA, Bar Rte.	NAGUSIA, 18
PASTORIZA, Bar	CL.TOMAS ALBA, 11
PATSOLA, Bar	TRANBIA IBILBIDEA, 3
PETRI, Disco Bar	CMNO PETRITEGI
SAGARTXO, Bar	CL MAYOR, 33
TXINGURRI, Bar Rte.	AV DONOSTIA, 90
YALDE, Rte	OIALUME BIDEA, 34

Sagardoa eta natura, Astigarragan uztarturik

Astigarragako eskaintza turistikoa oso loturik dago sagardoaren munduarekin. Bisitariak edari honek herriaren jatorrian eta garapen historikoan izan duen garrantzia erakusteko eta nola ekoizten den azaltzeko helburuarekin, Astigarragak sagardoaren museoa sortu du: Sagardoetxea. Herrira bertaratzen direnentzat erakargarritasun handienetakoa bilakatu da erakusketa espazio bat, sagarrondo pedagogiko bat eta dastatzeetarako zona duen entitate hau.

Sagardoetxea museoan sagardogilearen tresna anitzak aurkezten dira, bai eta ikus-entzunezkoak, informazio panelak, jokoak eta argazkiak ere. Museoaren albo batean, kanpoaldean, dago sagarrondoa, non bisitariak aukera duten sagar mota ezberdinak, bilketa modua eta zuku preziatu honen ekoizpenaren xehetasun asko eza-gutzeko. Ibilbidearen azken geldialdia dastatze zonan egiten da. Bertan, sagardoa 'txotx' modura zerbitzatua eskaintzen zaie bisitariari.

Sagardoetxeak hainbat berrikuntza barneratuko ditu aurtien. Urtearen lehenengo zatian Erbitegi Etxeberri Dolarea ezarriko du, izen bereko baserriak berreskuratuak. Antzina erabiltzen zen sagardoa produzitzeko eskuzko prozesua azalduko du zehaztasunez. Era berean, Sagardoetxeak aukera ematen du natura eta sagardoa uztartzen dituzten txangoak egiteko, sagardotegietako bisita gidatuetan parte hartzeko eta menuak dastatzeko. Gainera, denboraldi bakoitzeko ekintzen bat antolatzen du: kizkiarekin sagarrak biltzea, muztioa lortzea edo sagarrondoetan txertaketak egitea, esaterako.

NATURAN MURGILDUTA

Astigarragaren beste ezaugarri azpimarragarrienetakoa natura da. Herria inguratzen duen aberastasun hori eza-gutzeko, bisitariak aukera dute Udalaren jabetza den Santiagomendi aterpetxean ostatua hartzeko. Santiagomendiko jatorrizko ermitaren eraikinaren ondoan kokatua dago. Izen bereko mendiaren puntan dago XII. mendeko ermita hau, 298 metroko altueran. Bistak izugarriak dira

eta Donostiako badia ikus daiteke bertatik. Santiagomendik garrantzia historiko handia izan du bere kokapen estrategikoa dela eta. Il-do horretatik, Aranzadi Zientzia Elkartek hainbat indusketa egin ditu mendiaren magaletan eta duela 2.000 urte gizakiak bertan egon izan zirela egiaztatzen duten aztarnak aurkitu ditu.

Asteburuetan eta eskolako oporretan alokatu daiteke aterpetxea. Aukera bikaina da senideekin edo lagunekin egun batzuk pasatzeko edo ta kirol topaketak, enpresen bilerak edo jardunaldiak antolatzeko.

Deskantsurako pentsatua dagoen ostatu hau 2006an zaharberritua izan zen. Guztira, 308 metro koadroko espazioa du, bi solairutan banatua, eta 35 pertsona sartzeko egokitu dago. Beheko solairuan sukalde, komunak, erabilera anitzetarako gela eta telefono publikoak daude, eta goikoan, berri, logelak. Beharrezkoa den guztia ingurune ezin hobeaz gozatzeko. ■

INFORMAZIO GEHIAGO

Sagardoetxea
www.sagardoetxea.com • T. 943 550 575
Asociación de Sidra Natural de Gipuzkoa
Gipuzkoako Sagardogileen Elkartea
www.sagardotegiak.com • T. 943 33 68 11
Albergue Santiagomendi
T. 943 55 67 27